

STEFANO SANNA

LA MONETA MODERNA SPIEGATA AI RAGAZZI



edizioni  arianna

Itzultzailea: joseba felix tobar-arbulu

Gure amari eta aitari eta Estatuko enplegatu guztiei.

Defizit-gastuarekin Italiako Estatuak garai hartako gazteei familia bat eratzea ahalbidetu

zien eta gure gurasoei ni jaio nendin eta ikas nezan

HASI AURRETIK

ABERATSA eta TXIROA

ZER DA DIRUA?

ESTATU BATEN DIRUA

ESTATU BATEN ABERASTASUNA

ETORKIZUNAREN LAPURRAK


IRAKURLE GAZTETXOENTZAT BAINA BATEZ ERE HAIEN GURASOENTZAT

HASI AURRETIK

Pertsona aberats batengan pentsatzen dugunean, berehala imajinatzen dugu pertsona horrek diru asko duela. Zenbat eta aberatsagoa izan, orduan eta diru gehiago duela alegia. Baina dirua al da aberastasuna? Diruak du benetako balioa? Ala diruaren balioa gauden lekuaren arabera aldatzen da? Hori ulertzeko bi gizon aurkeztuko dizkizuegu:


Giovanni eta Antonio.

Irudikatu ditzagun biak irla bakarti batean.




ABERATSA eta TXIROA

Antonio bakarrik bizi da ezer hazten ez den uharte batean. Ezer ere ez. Antoniok bere uhartean daukan gauza bakarra diruz beteriko zakuak dira. Diru askorekin betetako zakuak, Antoniok ohe gisa erabiltzen dituenak. Egunez Antoniok diruari begiratzen dio, ezer egin gabe, baina ez dirudi pozik.




Antonio bizi den uhartetik oso urrun Giovanni bizi da. Antoniok ez bezala, Giovanni ez dauka zentimo bakar bat ere. Poltsikoak hutsik ditu. Hala ere, uhartean fruta-arbolak ditu, animaliak eta baita baratze polit bat ere. Giovanni, Antonio ez bezala, egunean zehar ezin da besoak gurutzaturik egon lan handia daukalako. Giovanni lurra landu behar du, eta animaliak zaindu. Horrela zuhaitzetako frutak jan eta animalien esnea edan ahal izango du.



Giovanni zoriontsu dago bere fruta eta animaliekin; eta egiten duen lanarekin.

Egoera horretan, nor da aberatsagoa? Aberatsagoa da Antonio, horrenbeste dirurekin uharte batean bizi dena bakarrik ala Giovanni da, bakarrik bizi dena ere uharte batean baina ongi bizitzeko behar duenarekin? Erantzun baino lehen zeuen buruei galdetu ea hobea den uharte batean bakarrik egotea diruz betetako zakuekin ala dirurik gabe egotea baina frutarekin, esnea ematen duten animaliekin eta lurreko beste produktuekin.



Chi è più ricco?

Bakarrik baldin bagaude eta soilik dirua badaukagu eta ez gehiago gosez hilko gara dirua ezin baitugu jan.
Guztiok nahiago dugu uharte batean bakarrik egon, baina edateko eta jateko gauzak edukitzeko aukerarekin, bizitzeko behar ditugun gauzekin alegia. Ezin dugu dirua jan. Fruta, berriz, jan dezakegu.
Horrek esan nahi du janariak balio erreala duela, diruak berezko baliorik ez duen bezala.



Aberastasuna lurreko produktuetatik dator, animalietatik, lurra lantzeko eta animaliak hazteko beharrezkoa den lanetik eta lan egiteko sortzen ditugun tresnetatik.



ZER DA DIRUA?


Beraz, zer da dirua eta zertarako balio du? Lehenik eta behin, bi pertsonaren arteko itun bat da. Akordio bat. Bi pertsona behar dira paper bat dirutzat hartu ahal izateko eta, beraz, monetaren balioa edukitzeko. Pertsona bakar batek uharte batean ez dauka inongo beharrik paper zati batek moneta gisa balio duela esateko, ezin izango baitu inorekin trukatu.



Nola sortzen da dirua? Pentsa dezagun elkar ezagutzen duten bi pertsonengan: Gigi eta Beppe. Gigik Bepperi arrautza bat ematen dio maileguan. Beppek Gigiri arrautza itzuliko diola ziurtatzeko paper zati batean honakoa idazten du: *arrautza bat zor dizut*. Sinatu eta Gigiri bidaliko dio, horrek onartzen badu betiere. Horrela, egun batzuk geroago, Gigi Bepperen etxera paper zati horrekin joaten denean, Bepperi arrautza bat eska diezaioke. Paper zati hori *diru* bilakatu da.




Gigik eta Beppek adostu dute paper zati horrek biontzat *arrautza baten* balioa duen dirua dela. Dirua, beraz, itun bat da, gutxienez bi pertsonaren arteko akordio bat. Elkarrekin bizi diren pertsonak trukatzeko dituzten gauzen balioa erabaki dezakete paper zati batzuekin. Paper zati horiek dirua dira. Halaber, erabaki dezakete beren lana trukatzea dirua izatea erabaki duten paper zatiekin neurtuz.



ESTATU BATEN DIRUA

Pertsonak bandera berberaren azpian batzen direnean, Estatu berean, Estatuak erabakitzen du zein diru erabili, hau da, zer nolako paper zatiak diren diru gisa erabil daitezkeenak. Estatuak egin dezake hori ez delako pertsona bat; areago, pertsona bat baino boteretsuagoa eta handiagoa delako. Hori dela eta, Estatuak aukeratzen du diru gisa erabiliko den paper zatia, eta erabakitzen du ere nola deitu behar den.




Estatuak egin behar duen lehen gauza da pertsonak konbentzitzea berarentzat lan egin dezaten. Estatuak pertsonen lana behar du komunitaterako produktu eta zerbitzu baliagarriak eskaintzeko. Estatuak pertsonetikiko gogor samarra izan behar du beretzat lan egin dezaten; beraz, horrela esaten die: urtero itzuli behar dizkidazue nik diru deitu ditudan paper zati batzuk, niretzat egiten duzuen lana ordaintzeko eman dizkizuedanak. Estatuak paper zati horien balioa erabakitzen du, eta paper horiekin berarentzat lan egitea erabaki duten pertsoneri ordaintzen die.



Zure lanaren ordu batek paper zati bat balio du. Estatuak erabakitzen du paper zati batek zure lanaren ordu bat balio duela. Hiritarrek estatuari itzuli behar dioten diruari zerga deitzen zaio. Sinesgarria izateko, Estatuak hauxe esaten du: zergak ordaintzen ez badizkidazu, zigortuko zaitut: zure etxearen zati bat kenduko dizut, edo zure autoaren zati bat. Estatuak herritar guztiei zergak ordainarazten dizkien heinean, zergak ordaintzeko Estatuak erabakitzen dituen paper zatiak lortu behar dituzte ezinbestean.




Dirua lor daiteke jadanik Estatuaren dirua irabazi dutenentzat lan eginez. Gainera, Estatuak, paper zatiak erabili gabe, ordenagailu batean izan dezake gastatzen duen diruaren kontua. Soldata bat ordaintzeko langilearen kontuari zenbakiak gehitzen dizkio. Langileak zergak ordaindu behar dituenean, aldiz, Estatuak kontutik zenbaki batzuk kentzen dizkio. Horrela, maisuek, medikuek, poliziek eta abarrek beren etxeko ordenagailuan ikus dezakete zenbat diru geratzen zaien.



Estatuaren ordenagailuko zenbakiak ezin dira bukatu berarentzat lan egiteko pertsonak dauden bitartean, eta herritarrentzat gauza baliagarriak egiteko beharra dagoen bitartean. Egun horretara arte Estatuak bere ordenagailuan soldatak ordaintzeko eta lan egin nahi duten pertsona guztiei lana emateko behar diren zenbaki guztiak idatziko ditu. Guztiek zergak ordain ditzakete alde zuzenetik Estatutik dirua kobratu dutelako.

Izan ere, lehendabizi Estatuak pertsonen ordaintzen die, eta, ondotik, pertsona horiek Estatuari diruaren zati bat itzultzen diote zergen bitartez.




Estatuak diru gehiago gastatzen duenean herritarrek zergen bidez itzultzen diotena baino, Estatuak defizita daukala esaten dugu. Estatuak defizita daukanean, hiritarrek diru gehiago irabazten dute zergak ordaintzeko gastatzen dutena baino, eta diru zati bat gorde dezakete. Estatuak gastatutako eta hiritarrek zergak ordaintzeko ez erabilitako dirua aurrezki bilakatzen da. Guztiek aurreztu dezaten beharrezkoa da Estatuak defizita edukitzea.



ESTATU BATEN ABERASTASUNA


Giovanni eta Antonioren adibideak argi erakutsi digu aberastasun erreala pertsonak, horiek egiten duten lanak eta beren lanaren bidez sortzen dituzten gauzek osatzen dutela. Diruak eta bitek lana eta lanak sortzen dituen gauzak neurtzen dituzte; dirua eta bitek aberastasuna neurtzen dute, finean. Estatu batek zubi bat eraiki nahi badu, ez du inoiz egingo diruarekin, hau da, ezin du billeteak eta txanponak elkarrekin jarri autoak eta pertsonak igaro daitezzen ibaiaren alde batetik bestera.



Zubi bat eraikitzeko Estatuak langileak, ingeniariak eta zementu, burdin eta adreilu saltzaileak behar ditu, alegia errekaren alde batetik bestera autoak eta pertsonak pasatzeko zubia eraikitzeko behar den guztia. Hori ordaintzeko bere konputagailuan langileen eta ingeniarien soldatak ordaintzeko dirua idatziko du, baina zementu, burdin eta adreiluen hornitzaileei ordaindutako dirua ere.



Estatua, bere monetaren bidez, gai da aberastasuna sortzeko pertsonen lanaren bitartez. Izan ere, lan egiten duenaren adimenak balioa gehitzen die ekoiztutako gauzei. Halaber, Estatuak aberastasuna sortzen du pertsonak eskaintzen dituzten zerbitzuen bidez. Hori da Estatu batek duen aberastasun erreala.



Pentsa ezazue bizitzeko lekuri ez daukatenentzat etxeak eraikitzen dituen Estatu batean. Edo eskolak konpontzen dituen Estatuan. Pentsa ezazue zenbat aberastasun sortzen duen Estatuak medikuekin, erizainekin eta ospitaleekin, herritarrak sendatzen dituztenean lan egitea, ikastea, bidaiatzea eta abar ahalbidetuz. Azkenik, pentsa ezazue zenbat aberastasun sortzen duen Estatuak, gazteek nahikoa aurreztu dezaketenean ezkondu eta seme-alabak edukitzeko; ikasiko duten seme-alabak, eta ingeniari, mediku, igeltsero, gizarte-langile, mekaniko, elektrikari edo artista bilakatuko direnak. Estatuak aberastasuna sor dezake ez delako pertsona soil bat; ez delako herritar bat beste herritar batzuen artean.

Estatu desberdina da. Soilik Estatuak ezartzen ditu zergak eta soilik Estatuak sortzen du dirua, zergak ordaintzeko erabil daitekeena. Soilik berak sor dezake guztiei lana emateko beharrezkoa den moneta guztia.

Benetako aberastasuna sor dezake herritar guztientzat.


ETORKIZUNAREN LAPURRAK

Tarteka, zure etorkizunaz arduratzen ez diren jaun boterezaleek Estatuari dirua sortzeko aukera kentzen diote. Badakite dirua sortzeko inongo aukerarik ez duen Estatuan haiek direla jaun eta jabe. Estatuak zergak ezartzen ditu, baina *ezin* du sortu zerga horiek ordaintzeko behar den dirua. Horrelako Estatu batek *ezin* die guztiei lana eman, eta ezin du etorkizuna eraiki.




Jaun horiek erabakitzen dute Estatuak beren lagunei dirua maileguan eskatu behar diela. Lagunak merkatuak deitzen dira. Lehen, Estatuak gastatu egiten zuen lehendabizi, eta ondotik zergak biltzen zituen.

Orain, lehendabizi zergak bildu behar ditu eta soilik ondotik gastatu dezake. Beste era batera esanda: merkatuei dirua maileguan eskatu behar die, eta kosta ahala kosta dirua itzuli interesak gehituz. Beste edozein pertsonak bezalaxe.



Estatua egoera txarrean dago: maileguan hartzen duen diru guztia itzuli behar du, eta gehiago ere bai, merkatuek irabaziak nahi dituztelako. Orain, merkatuei eskatu eta itzuli behar dienean, Estatuak ezin du zergekin biltzen duena baino gehiago gastatu. Diru guztia zergak ordaintzeko behar duenez, hiritarrek ezin dute aurreztu; ez dute diru gehiagorik beren itsulapikoetan sartzeko.




Oso garrantzitsua da jakitea zer den dirua eta nola sortzen duen Estatuak. Estatu batek dirua sortzen duenean eta herritarren alde gastatzen duenean, guztiok goza dezakegu gure lanarekin sorturiko zerbitzu eta produktuez: ospitaleak, eskolak, kaleen garbitasuna, museoak eta abar.



Estatuak lan egiten dutenen segurtasunean inbertitzea erabaki dezake, eta dirua sortu guztiei erakusteko nola egin behar den lan inongo arriskurik eta galbiderik gabe. Zure bizitzan gauza asko hobetuko lirateke baldin eta Estatuak erabakiko balu gauza horiek eraikitzea. Beraz, zer behar duzue zuen etorkizunerako? Gauzak egiten dakiten duten pertsona guztiek lan egin dezaten. Gauza onuragarriak egiten ikasi behar duzue. Horretarako, gauza horiek irakasteko eskolak eraiki behar dira. Eta nork irakatsi egotea.



Heldua zarenean, zerbitzuak beharko dituzu, ongi egoteko gauzak, bizitzeko leku seguru eta garbi bat. Hori lortzeko Estatuak bere ordenagailuetan pertsona guztiak zure etorkizunerako egin dezaketen lana neurtzeko behar diren bitak idatziko ditu. Estatuak dirua sortu behar du, eta zure etorkizuna hobetzeko erabili. Horrela bakarrik izango zara aske helduaroan.



IRAKURLE GAZTETXOENTZAT BAINA BATEZ ERE HAIEN GURASOENTZAT

Ez da erraza azaltzea modu xume batez nola funtzionatzen duen Estatuak sortutako moneta modernoak. Hala ere, nahiko erraza eta garrantzitsua da azaltzea zergatik Euroguneko Estatuak berreskuratu behar duten enplegu osoa lortzeko beharrezkoa den inbertitzeko ahalmena. Gure Konstituzioa lanerako eskubidean oinarritzen da. Hori garrantzitsua da gure seme-alabak hiritar arduratsu eta askeak izan daitezen.

DTM SAREA

Rete MMT MMT —alegia DTM (Diruaren Teoria Modernoa)— gizarteratzeaz arduratzen da, pertsonen aldekoa den eta bi mendetako ibilbidea duen eskola ekonomikoa. Elkarrearen helburua da zibilizazioa austeritatearen hondamenetik salbatzea.

Testuaren eta irudien autorea Stefano Sanna da, Rete MMTko talde ekonomikoko kidea. Ekitaldi publiko askotan DTM azaltzeaz gain, bigarren hezkuntzako eskola batzuetan aritu da ikasleei DTM azaltzen. Testuen orrazketak Daniele Basciurenak —DTMko ekonomialaria eta *Uccidere il dio dell'austerità* liburuaren autorea — eta Warren Bruce Moslerenak —*Politika ekonomikoaren zazpi gezur inozo nagusiak* liburuaren egilea eta Diru Teoria Modernoaren sortzailea— dira.



Estatuak dirua sortu behar du, eta hura erabili zure etorkizuna hobetzeko.
Soilik horrela izango zara aske helduaroan.

Moneta moderna gaztetxoei azaldua

Diseinua eta testua Stefano Sannarenak

